

DIRU ITURRIAK

Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari

zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?

Gure proposamena gastu horiek nolabait murriztu ahal izateko eta galerak ez izateko

hurrengo kontzeptu hauekin egin ditugu:

- Estatuarekin adostasun bat egingo dugu. Haiek dirua emango digute (taxak) osasun publikoko zerbitzua (osakidetza) azkartzeagatik. Ospitalera benetan grabe daudenak joango dira (ez oso gaixorik daudenak, aplikazioan zer duten begiratu eta sendatzeko alternatibak ikusiko dituzte). Beraz estatuak diru sarrera handiak emango dizkigu.
- Sendagaiak fabrikatzen dituzten enpresak: Sendabideetan haien sendagaiak gomendatzeagatik dirua eman beharko digute. Hau da, gripe bat sendatzeko X jarabea gomendatuko dugu, X jarabea sortzen duen enpresak ordaintzen badigu.
- Aplikazioan beste enpresa batzuk patrozinatzeagatik ordainduko digute. Adibidez, beheko aldean kutxa txiki batean Y enpresaren karteltxo bat jarriko dugu, haren eskaintzak anuntziatuz. Horrela, Y enpresak ordainduko digu. Google Maps patrozinatu dezakegu adibidez, farmaziak non dauden adierazteko eta non dauden guardiako farmaziak, ezagiatzen ez duzun hiri batean bazaude azkar bilazeko.